

Ander Basaldua, dekanordea

2009-11-17

IÑAKI UGARTEBURU GASTAÑARES

OMENALDI EKITALDIA

Ander Basalduak esandakoa, gutxi gorabehera.

Gaur hemen gauza asko entzun dira, nik esatea nahi nuena barne.  
Horregatik, ez errepikatzearren, gauza bat aipatuko dut soilik, labur labur esanda:

IÑAKI LAGUNA

Beti laguntzeko prest, langile nekaezina,

Euskaldun peto-petoa, bertsozalea,

Urtero bertso-bazkaria ekitaldi arrakastatsuen antolamenduan buru belarri parte hartzen.

Bertsolariek pista ematen eta ikasleek, taldeka, zein patologia den asmatzeko ahaleginak egiten.

Ondo pasatzea eta euskara uztartzen.

Xabier Amurizak Lazkao Txiki in memoriam kantatu zuena gogoan hartuta, ondoko puntuak aipatzea pentsatu dut

Maitea, sinistea, uztea, tristea, piztea.

Agur hainbeste poz eman duzun

Iñaki Ugar, maitea

kostako zaigu gure ondoan

ez za..udela sinestea.

Agurra\_eman ta mingarria da

zu han mendian uztea.

Beste mundua ez da\_izango hau

izan den bezain tristea,

zerbait badago desio nuke

zure ondoan piztea.